

## ERANTZUKIZUNA ETA KONPROMISOA, OLATU BERRIA SORTZEKO

2024ko Euskararen Nazioarteko Egunaren atarian, mankomunitateak adierazpen hau onartu du:

Euskararen biziberritze prozesuak susperraldi egoera bizi izan du azken hamarkadetan, baina badira urte batzuk euskararen egoera bidegurutzean dagoela aditzen hasiak garela. Euskararen gaur egungo egoera zein den ulertzeko Iñaki Lurrebasoren doktore tesiak proposatutako ikuspegi berriak edota Euskaltzaindiaren gogoeta guneak ere argi erakutsi eta adierazi dute jauzi sendoak emateko unea iritsi zaigula.

Euskara bi hizkuntza hegemonikorekin talka egoeran dagoen hizkuntza gutxitua izanik, aldeko hizkuntza politikak egin beharra ezinbertzekoa da euskarari eutsiko badiogu. Gainera, globalizazio egoerak, aldaketa demografikoek eta digitalizazioak, bertzeak bertze, ez dizkigute errazten hizkuntza gutxituak indarberritzeko aukerak.

Dugun errealitatea, euskararen egiturazko arazoei heltzeko azken aukera izan daiteke. Jauzi berria emateko unea da, aitzinera egiten ez badugu gibelera egiten dugulako. Datuek horixe erakusten digute: euskal herritarren %13k erabiltzen du euskara erdarak baino gehiago; %8 aritzen da euskaraz erdaretan baino errazago; eta, transmisioari erreparatuz gero, Hegoaldeko haurren %17k jaso du etxean euskara nagusitasunez. Era berean, euskal herritarren %4 soilik bizi da euskara nagusi den eremuetan. Alegia, euskaraz normaltasun erlatibo bizi daitekeen guneetan. Gainera, gune horiek ahultzen ari zaizkigu.

Horrenbertzez, ELEN Europako Hizkuntza Gutxituen sareak eta Euskalgintzaren Kontseiluak adierazi berri duten bezala, guk ere euskara larrialdi linguistikoan dagoela adierazi nahi dugu.

Horrez gain, nabarmendu behar dugu, joera soziolinguistikoaz harago, epaitegietatik ere euskararen aurkako neurriak hartzen jarraitzen dutela. Gure hizkuntzaren aurkako oldarraldian murgilduta jarraitzen dugu.

Horren guziaren aitzinean, inoiz baino gehiago, euskararen aldeko neurriei tinko heldu behar diegu, eta jauzi handi bat eman norabide egokian.

Eginkizun horretan berebiziko garrantzia dute arnaguneek eta udalerrri euskaldunek, horiek erakusten dutelako posible dela euskaraz bizi den herria. Hizkuntza guziek behar dituzte beraiek nagusi diren eremuak, hizkuntza naturalki transmititzen den eremuak, hizkuntza garatu dadin, normalizatuz eta zabalduz. Horregatik, gune euskaldunek ardura dute jauzi berri hori irudikatze eta bide erakusle izateko. Guk erantzukizun hori geure egiten dugu, eta konpromisoa hartzen dugu zeharkako hizkuntza politika aurrerakoia indartzeko.

**Azken hamarkadetan euskara mantentzeko eta zabaltzeko gai izan bagara, aurrerantzean ere horretan jarraitzeko bizi-indarra izanen dugu. Olatu berria sortzeko unea orain da, eta olatu horren eragile izanen da mankomunitatea ere.**

**Bortziriak, 2024ko abenduaren 3a**

